



**LANKIDETZA HITZARMENA,
UNIVERSIDAD PAÍS VASCO/EUSKAL
HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA
GIZARTE EKINTZAKO EKIMENETARAKO
ZAMBRA ELKARTEAREN ARTEKOA**

Leioa, 2019ko maiatzaren 30a.

BILDUTA

Batetik, **NEKANE BALLUERKA LASA** andrea, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU) errektorea, erakunde horren (erakundearen IFK: Q-4818001B; egoitza: Leioa) ordezkari gisa eta Euskal Herriko Unibertsitateko estatutuek, abenduaren 23ko 322/2003 Dekretu bidez onartutakoek (2004-01-12ko EHAA), ematen dizkioten eskumenak erabiliz.

Bestetik, Isabel Álvarez Vispo andrea, **Zambra: gizarte ekintzarako ekimenak** (aurrerantzean, Zambra) elkartearen Euskadiko ordezkariaren ordezkaria (egoitza: Francisco Carter, N. 1.1, Malaga eta IFK: G92037985), ordezkari horrek emandako ahalmenen bertutez.

Bi aldeek hitzarmen hau betetzeko behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- UPV/EHU zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntza. UPV/EHUK bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL
HERRIKO UNIBERTSITATEA Y LA
ASOCIACIÓN ZAMBRA, INICIATIVAS PARA
LA ACCIÓN SOCIAL**

En Leioa, a 30 de mayo de 2019

REUNIDAS

De una parte, la Exma. Sra. D^a. **NEKANE BALLUERKA LASA**, Rectora Magnífica de la Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante UPV/EHU), como representante de esta institución y en virtud de las competencias que le otorgan los Estatutos de la Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea aprobados por Decreto 17/2011, de 15 de febrero (BOPV 24/02/2011), con CIF Q-4818001B y sede en la ciudad de Leioa.

De otra parte, D^a **ISABEL ÁLVAREZ VISPO**, Representante de la Delegación en Euskadi de la Asociación **Zambra: Iniciativas para la acción social** (en adelante Zambra), con sede principal en Málaga, calle Francisco Carter N. 1.1 y CIF: G92037985 y en virtud de las competencias que le otorga dicha representación.

Las partes se reconocen mutuamente capacidad jurídica suficiente para suscribir el presente Convenio en nombre de las respectivas entidades, y al efecto

EXPONEN

PRIMERO.- Que la UPV/EHU es una Institución de Derecho Público, al servicio de la sociedad, para prestar en el ámbito de su competencia, con el compromiso ineludible de calidad y excelencia, el servicio de la enseñanza superior mediante la docencia, la investigación, el estudio, la proyección cultural y universitaria, que por su papel de institución transmisora de valores y



bermatzeko konpromisoa. Balioak transmititu eta jakintza bermatzeko instituzioa denez, ardura berezia du unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza gauzatzen, batez ere gizarte eta kultur desberdintasunak murriztu daitezen, eta bizitza politikoan, kulturalean eta sozialean modu hobean parte hartzea ahalbidetzeko baldintzak sor daitezen.

BIGARRENA.- UPV/EHUren helburua da, besteak beste, munduan diren mota guztietako desberdintasunez jabetzen diren profesionalak hezi eta prestatzea, pertsona horiek gai izan daitezen gizartearen aurrerapena oztopatzen duten arazoez eztabaidatzeko, betiere ekitatea, iraunkortasuna eta giza eskubideekiko begirunea arreta handiagoz kontuan hartzen dituen ikuspuntu batetik. Horren erakusle dira erakunde askorekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenak.

HIRUGARRENA.- Zambra elkarte bat da, komunitatearen eraikuntzaren ikuspegitik gizarte bazterkeriaren aurka lan egiten duten pertsonak biltzen dituen. Espainiako estatu osoan egiten du lan, lurraldeko talde autonomoekin koordinatuta, eta Malagan egoitza nagusia izateaz gainera, beste bi ordezkarietan ditu, bat Valentziako Erkidegoan eta beste bat, EAEn. Haren estatutuetan jasota dagoen moduan, elkartearen helburuak honako hauek dira: giza arazoen azterketa sakon eta zorrotza egitea, gizarte ekintzaren lanaren arloan eragin zuzena duten gizarte, ekonomia eta kultura alderdiei erreparatuta, eta askotariko ekimenak, esperientziak eta jarduerak koordinatzea, gizarte esku hartzearen arloan (soziokulturalak, elkarteari lotutakoak, prestakuntzakoak, aldarrikapenak, etab.). Hori dela eta, gizarte arazoak hobeto ezagutzen laguntzen duten azterlanak eta ikerketak egiten ditu, arreta berezia jarrita sektore kaltetuenengan; era berean, inplikaturako pertsonen eta kolektiboen arteko gogoeta eta eztabaida topaguneak bultzatzen ditu, eta jarduera horien guztien emaitzak zabaltzen ditu.

sancionadora del saber, tiene una especial responsabilidad en hacer efectivo la difusión y proyección universitarias, orientadas en particular a la reducción de las desigualdades sociales y culturales, y a la creación de las condiciones que permitan una mejor participación en la vida política, cultural y social.

SEGUNDO.- Que la UPV/EHU tiene entre sus fines la formación y preparación, en el nivel superior de la enseñanza, de profesionales conscientes de las desigualdades de todo tipo que existen en el mundo y con capacidad de participar en los debates sobre los problemas que afectan al progreso de las sociedades en una clave de mayor equidad, sostenibilidad y respeto a los derechos humanos. Prueba de ello son los convenios de colaboración existentes con un amplio número de entidades y organismos.

TERCERO.- Que Zambra es una asociación que agrupa a personas que trabajan desde la construcción comunitaria contra la exclusión social. Su labor se desarrolla por todo el Estado Español de forma coordinada en grupos autónomos territoriales contando, además de con su sede principal en Málaga, con dos delegaciones, una en la Comunidad Valenciana y otra en el País Vasco. Son fines de esta asociación, tal y como se refleja en sus Estatutos, el estudio profundo y riguroso de la problemática humana en sus aspectos sociales, económicos, culturales que tienen una incidencia directa en el campo de trabajo de la acción social, así como el posibilitar la coordinación de iniciativas, experiencias y actividades de todo tipo en el campo de la intervención social (sociocultural, asociativas, formativas, reivindicativas, etc.). Por ello están entre sus actividades la elaboración de estudios e investigaciones que contribuyan al mejor conocimiento de las distintas problemáticas sociales con especial atención a los sectores más desfavorecidos y favorecer encuentros de reflexión y debates entre personas y colectivos implicados, así como la difusión de resultados de todas estas actividades.



LAUGARRENA.- Bi aldeek dute lankidetzaren esparru bat ezartzeko interesa, bi erakundeen helburuak beteko dituzten jarduerak eta lanak antolatzeko.

Esandako guztiagatik, alde biek honako hau

HITZARTZEN DUTE

Lankidetzaren hitzarmen hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da lankidetzarako esparru bat sortzea, UPV/EHUK eta Zambrak elkarrekin ekimenak egin ditzaten prestakuntzaren, ikerketaren eta sentsibilizazioaren arloan.

BIGARRENA.- APLIKAZIO EREMUA

Bi aldeen arteko lankidetzaren hitzarmenaren lehenengo klausulan deskribatutako ekimenak garatzera mugatuko da. Zehazki:

1. Ikerketak bultzatzea, gizarte bazterkerian eragina duten faktoreei buruz eta politika eta eredu zuzenagoak eraikitzekeko estrategia posiblei buruz.
2. Gaietan adituak diren pertsonen prestakuntza eta hobekuntza laguntzea.
3. Komunikazioa eta informazio trukea bultzatzea, aberastasunaren banaketari eta komunitate eraikuntzaren ikuspegitik aukera justuagoi lotutako alderdien gainean (parekoen arteko oinarritzko errenta eta beste batzuk).
4. Klausula honen aurreko paragrafoetan aipatutako puntuei buruzko kongresuak, bilerak eta jarduerak

CUARTO.- Que ambas partes están interesadas en establecer un marco de colaboración para la realización de actividades y trabajos conducentes al cumplimiento de los fines de ambas instituciones.

Por todo lo expuesto, ambas partes

ACUERDAN

Formalizar el presente convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO

Es objeto del presente Convenio crear un marco de colaboración para el desarrollo de iniciativas conjuntas a llevar a cabo entre la UPV/EHU y Zambrak en el ámbito de la formación, investigación y sensibilización.

SEGUNDA.- ÁMBITO DE ACTUACIÓN

La colaboración entre las partes se circunscribe al desarrollo de las iniciativas descritas en la cláusula primera del Convenio. En concreto:

1. Promover la investigación sobre los diferentes factores que afectan a la exclusión social y las posibles estrategias de construcción de políticas y modelos más justos.
2. Contribuir a la formación y perfeccionamiento de personas expertas en la materia
3. Promover la comunicación y el intercambio de información sobre los aspectos que tienen que ver con la redistribución de la riqueza, así como alternativas más justas desde la construcción comunitaria (Renta básica de las iguales y otras)
4. Organización de congresos, reuniones y actividades sobre los puntos referidos en



antolatzea.

5. Gaiari lotutako argitalpenak argitaratzea.
6. Gizarte bazterkeriari eta desberdintasunari buruzko eztabaida publikoa sustatzea, baita eredu justuagoak lortzeko aldaketara eramango gaituzten gizartea eta politika eraikitze formulak ere.

Aldeek ados jarrita, hitzarmen honen helburuak lortzen lagunduko duten bestelako jarduerak.

HIRUGARRENA.- LANKIDETZAREN GARAPENA

Hitzarmen honen babesean egiten den jarduera eta proiektu bakoitzak aparteko tramitazioa izango du, kasu bakoitzari dagozkion arauei jarraiki. Tramitazioan jaso beharko dira lankidetzaren nondik norakoen xehetasunak, eta aldean konpromisoak, hala ekonomikoak (horrelakorik egonez gero) nola bestelakoak.

Hitzarmen hau garatzeko egiten diren akordio, kontratu eta bestelako dokumentuetan, bakoitzari dagozkion xehetasunez gainera, honako hauek ere jaso beharko dira:

- a) Lankidetzan egindako ikerketako emaitzen titulartasuna eta horiek ustiatzeko erregimena, baita ikerketan parte hartu behar dutenen konfidentzialtasun araubidea ere.
- b) Ikerketarako azpiegituren erabilera partekatua, eta, hala behar izanez gero, horiek erabiltzeko baldintzak ere.

LAUGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Informazioa zabaltzerakoan Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 3/2018 Lege Organikoa bete beharko da, baita

los párrafos anteriores de esta cláusula.

5. Editar publicaciones relacionadas con la materia
6. Promover el debate público sobre la exclusión social y la desigualdad, así como las posibles fórmulas de construcción social y política para un cambio hacia modelos más justos.

Cualesquiera otras actividades que de común acuerdo adopten las partes y favorezcan la consecución de los fines del presente convenio.

TERCERA.- DESARROLLO DE LA COLABORACIÓN

Cada una de las actividades y proyectos que se realice al amparo del presente Convenio deberá ser objeto de tramitación específica, de acuerdo con la normativa que, en cada caso, resulte de aplicación, en los que se reflejará pormenorizadamente la dimensión y el alcance de la cooperación, así como los compromisos, tanto económicos (si los hubiere) como de cualquier otro tipo asumidos por las partes.

Los convenios, acuerdos, contratos y cualesquiera otros documentos que desarrollen el presente Convenio, además de los extremos que le sean propios, deberán contemplar y regular los siguientes aspectos:

- a) Titularidad y régimen de explotación de los resultados de la investigación que se deriven de la colaboración, así como el régimen de confidencialidad al que debe someterse el personal participante.
- b) Utilización compartida de infraestructuras para la investigación, determinando en su caso, las condiciones de utilización de la misma.

CUARTA.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Cualquier transmisión de información quedará limitada por la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos de Carácter Personal,



hirugarrenei dagokien konfidentzialtasun eskubidea errespetatu ere.

BOSGARRENA.-JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmenaren babespean jarraipen batzorde bat sortuko da, bi aldeen ekintzei jarraipena egiteko eta ekintzok koordinatzeko, betiere bakoitzaren eskumen eta eginkizunen arabera, hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak eta helburuak betetze aldera.

Jarraipen Batzordea parekidea izango da. Lau kidek osatuko dute: batzordeburuak, idazkariak eta bi batzordekidek.

- Batzordeburua UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanoa izango da, edo hark izendatutako pertsona.
- Idazkaria **Zambra** Elkartearen Euskadiko Ordezkaritzaren ordezkaria izango da, edo hark izendatutako pertsona.
- Batzordekide bat UPV/EHUkoa izango da, eta UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko dekanoa izendatuko du.
- Batzordekide bat Zambrako kidea izango da, eta **Zambra** Elkartearen Euskadiko Ordezkaritzaren ordezkariak izendatuko du.

Batzorde hori arduratuko da hitzarmen hau interpretatzeaz, hitzarmenaren babesean egindako jarduerak programatzeaz, jarraitzeaz eta baloratzeaz, baita hitzarmena garatzean sor daitezkeen alderdi guztien gainean erabakitzeaz ere. Zehatz-mehatz, batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Hitzarmen honetan jasotako ekintzak bete daitezen bultzatu.
- b) Aldeek hala eskatuta, hitzarmena garatzeko ekintzak definitu eta egoki jotzen dituen behar adina batzorde

así como por el respeto al derecho de confidencialidad hacia terceros.

QUINTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

En el seno del presente Convenio se crea una Comisión de Seguimiento cuyo objeto será efectuar el seguimiento conjunto y coordinar las actuaciones de las partes, dentro del marco de sus respectivas competencias y funciones, en orden al cumplimiento de las obligaciones contraídas y objetivos generales del presente convenio.

La composición de la Comisión de Seguimiento tendrá carácter paritario. La formarán cuatro personas: la Presidenta/e; el Secretario o Secretaria y dos vocales.

- La Presidencia estará al cargo del Decano/o de la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social de la UPV/EHU o persona en quien delegue.
- El Secretariado estará a cargo de la o del Representante de la Delegación en Euskadi de la Asociación **Zambra** o persona en quien delegue.
- Un/a vocal pertenecerá a UPV/EHU y será designada por el Decano/o de la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social de la UPV/EHU.
- Un/a vocal pertenecerá a Zambra y será designada por la o del Representante de la Delegación en Euskadi de la Asociación **Zambra**

Dicha Comisión tendrá como funciones la interpretación del presente Convenio, la programación, seguimiento y valoración de las actividades derivadas del mismo, así como la resolución de todas aquellas cuestiones que surjan en su desarrollo. En concreto, serán funciones de la Comisión:

- a) Impulsar la ejecución de las acciones previstas en el presente Convenio.
- b) A petición de las partes, definir acciones y crear cuantas comisiones técnicas considere oportunas para el desarrollo del Convenio.
- c) Aclarar y decidir cuantas dudas y cuestiones puedan plantearse en la



tekniko sortu.

- c) Hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean planteatzen daitezkeen zalantzak eta gorabeherak argitu, eta horien gaineko erabakiak hartu.
- d) Hartutako konpromisoen jarraipena eta azken ebaluazioa egin.
- e) Hitzarmena garatzeko egindako jarduerak dokumentatu.

Alde bietako edozeinek eskatu ahal izango du bilerak egitea, hitzarmen hau bete dadila sustatzeko eta jarraipena egiteko, sor daitezkeen arazoak eta eztabaidak konpontzeko, bai eta jarduerak programatzeko eta ebaluatzeko ere.

Bilera horien akta egingo da, eta idatziz jasoko dira bertan bileran hartutako erabakiak. Lankidetzaren hitzarmen honen babesean egiten diren hitzarmen espezifikoetan, hitzarmen bakoitzeko jarduerari egingo zaion jarraipena deskribatuko da.

SEIGARRENA.- LANKIDETZAREN ZABALKUNDEA

Bi aldeek hitzarmen honen helburu den lankidetzaren nabarmentzeko konpromisoa hartzen dute, baita hitzarmen honen babesean sinatzen diren hitzarmen espezifikoak ere.

Ondorio horietarako, lankidetzaren hitzarmen honen emaitza litzatekeen jakintzaren argitalpen, dibulgazio ekitaldi eta ustiapen guztietan espresuki aipatuko da alde bien arteko lankidetzaren erakunde bien irudi korporatiboen agerikotasuna bermatuz, antzeko ezaugarri eta tamainarekin, beste batzuk sartzeko aukera eragotzi gabe.

ZAZPIGARRENA.- INDARRALDIA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2023ko maiatzaren 30ean amaituko da. Lau urtez luzatuko da esan gabe, 2027/05/30 arte, non eta bi aldeetako batek hura salatzen duen hitzarmenaren indarraldia amaitu baino

interpretación y materialización del presente Convenio.

- d) Realizar el seguimiento y evaluación final de los compromisos asumidos.
- e) Documentar las actividades realizadas en el desarrollo de este Convenio.

Cualesquiera de las partes podrá solicitar la realización de reuniones con objeto de impulsar la ejecución del presente Convenio y su seguimiento, la resolución de las incidencias y controversias que pudieran surgir, así como la programación y valoración de las actividades derivadas del mismo.

De esas reuniones se levantará, en su caso, acta en la que se reflejen de manera escrita los acuerdos adoptados. Los Convenios Específicos que se suscriban al amparo del presente Convenio describirán el seguimiento de las actuaciones realizadas dentro del ámbito de colaboración particular en cada uno de ellos.

SEXTA.- DIFUSIÓN DE LA COLABORACIÓN

Ambas partes se comprometen a destacar la colaboración objeto del presente Convenio, así como de los Acuerdos Específicos que se suscriban al amparo de éste.

A tales efectos, en todas las publicaciones o actos de difusión y explotación del conocimiento generado, fruto de este Convenio de Colaboración, se deberá dejar expresa constancia de la colaboración entre las partes, garantizándose la visibilidad de la imagen corporativa de ambas organizaciones con similares características de representatividad o tamaño, sin perjuicio de otras que procedan.

SÉPTIMA.- VIGENCIA

El presente convenio entrará en vigor a la fecha de su firma y finalizará el 30 de mayo 2023, prorrogándose tácitamente por otro periodo de cuatro años, es decir, hasta el 30 de mayo de 2027, salvo denuncia de cualquiera de las partes con al menos un mes



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

hilabete lehenago.

ZORTZIGARRENA.- ALDAKETA

Alde batek eskatuz gero, hitzarmen hau aldatu ahal izango da, biak ados badaude. Hitzarmenean egindako aldaketek eragina izan dezaten, idatziz jaso beharko dira, eta, behin bi aldeek sinatutakoan, hitzarmenari erantsiko zaizkio.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA ETA HORREN ONDORIOAK

Hitzarmen hau bertan behera utziz gero, honen babesean sinatutako hitzarmen eta kontratuak indarrean jarraituko dute bukatu arte.

Bi aldeek irakurri dute hitzarmen hau eta ados daude bertan adierazitakoarekin. Beraz, hitzarmenaren bina ale sinatu dituzte ondorio bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta egunean.

Zambra Elkarte

ISABEL ÁLVAREZ VISPO
Representante de la Delegación en Euskadi
Euskadiko Ordezkaritzaren ordezkaria

de antelación a la fecha de vencimiento.

OCTAVA.- MODIFICACIÓN

El presente Convenio podrá ser modificado de mutuo acuerdo a solicitud de cualquiera de las partes. Todas las modificaciones precisarán para su eficacia de la forma escrita y se adjuntarán al mismo como addenda una vez que ésta haya sido firmada por ambas partes.

NOVENA.- EXTINCIÓN Y SUS EFECTOS

En el caso de extinción del presente Convenio, los convenios o contratos suscritos al amparo del mismo mantendrán su vigencia hasta la finalización de los mismos.

Habiendo leído las Partes el presente Convenio y hallándose conformes con su contenido, lo firman por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha arriba indicados.



NEKANE BALLUERKA LASA
Errektorea / Rectora